

BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

ETXAGUE JENERALA 10



Egile ezezaguna, 1893

(Ez dago jatorrizko proiektuaren planorik Udal Artxiboan)

Deskribapena.

Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina eta hiru goi oin dituen, gehi fatxada planoan dagoen jasodura bat (jatorrizko teilatupearen aldaketa gisa) eta jasodura atzeraeman bat. Harlanduzko fatxada. Espedientearen testutik ondoriozta daiteke jatorrizko proiektua komuna dela Etxague Jenerala 12rekin.

Babes erregimena.

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.

A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: jasodura (5. goi oina).

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.